



II. ERANSKINA

JARDUERA ETA INSTALAZIO SAILKATUEN ZERRENDA

A) Jarduera-lizentzia behar duten jarduera eta instalazio sailkatuak.

- 1.– Erauzketa-jarduerak.
- 2.– Instalazio nuklearrak eta erradiaktiboak.
- 3.– 100 kW-etik gorako potentzia instalatua duten argindarra ekoizteko instalazioak.
- 4.– Industriak, oro har.
- 5.– Azaleraren tratamenduak, pistola bidezko bernizatze- eta pintatze-lanak edo antzekoak egiten dituzten tailerrak; bai eta motordun ibilgailuak mantentzeko eta konpontzeko lanak eta antzeko lanak egiten dituzten tailerrak ere.
- 6.– Hainbat tailer eta lantegi (aroztegiak, galdaragintza-tailerrak, muntaia-tailerrak, mekanizazioak, okindegiak, gozotegiak, cateringak...), baldin eta instalatutako potentzia totala (mekanikoa eta elektrikoa, argiarena kenduta) 25 kW-ekoa edo handiagoa bada eta ekoizpenerako azalera 300 m²-tik gorakoa bada.
- 7.– Biltegitarako, salerosketarako eta erakusketarako jarduerak eta instalazioak, toxiko, arris-kutsu edo sugarri gisa katalogatuta dauden produktu eta materialak baldin badituzte (500 kg-tik gora, bizitegirako hiri-lurzoruan, edo 1.000 kg-tik gora, gainerako lurzoruetan).
- 8.– Gasolina-zerbitzuguneak eta hornitegiak, eta erregai likidoak edota

ANEXO II

LISTA DE ACTIVIDADES E INSTALACIONES CLASIFICADAS

A) Actividades e instalaciones clasificadas sometidas a licencia de actividad.

- 1.– Actividades extractivas.
- 2.– Instalaciones nucleares y radiactivas.
- 3.– Instalaciones productoras de energía eléctrica con una potencia instalada superior a 100 kW.
- 4.– Industrias en general.
- 5.– Talleres que realicen tratamientos superficiales u operaciones de barnizado o pintado a pistola y similares, así como mantenimiento y reparación de vehículos a motor y similares.
- 6.– Talleres y obradores varios (carpinterías, caldererías, montaje, mecanización, obradores de panadería, pastelería, catering...), cuando la potencia total instalada (potencia mecánica y eléctrica, excluida la correspondiente al alumbrado) sea igual o superior a 25 kW y la superficie específicamente destinada a la producción supere los 300 m².
- 7.– Actividades o instalaciones de almacenamiento, comercio y exposición que dispongan de productos y materiales catalogados como tóxicos, peligrosos o inflamables en cantidad superior a 500 kg en instalaciones ubicadas en suelo urbano residencial, y 1.000 kg en el resto de suelos.
- 8.– Estaciones de servicio y parque de suministro, instalación distribuidora o



Asteasuko udala

<p>gaseosoak banatzeko instalazioak edo antzeko instalazioak.</p>	<p>instalación análoga de combustibles líquidos o gaseosos.</p>
<p>9.– Edozein motatako lurzoruan kokatutako erregai likido eta gaseosoak biltzeko instalazioak, 50.000 litrotik gora badute.</p>	<p>9.– Instalaciones de almacenamiento de combustibles líquidos o gaseosos ubicadas en cualquier tipo de suelo con una capacidad superior a 50.000 litros.</p>
<p>10.– Hondakinak bildu, berreskuratu eta deuseztatzeko instalazioak.</p>	<p>10.– Instalaciones de almacenamiento, valorización y eliminación de residuos.</p>
<p>11.– 500.000 m³ baino gehiagoko lekua daukaten lur eta harkaitzen betelanak, urtebete baino gehiago iraungo badute; azpiegitura linealetarako obrei lotutakoak izan ezik.</p>	<p>11.– Rellenos de tierras y rocas con una capacidad superior a 500.000 m³ cuya ejecución se prolongue por un tiempo superior a un año, excepto aquellos vinculados a obras de infraestructura lineal.</p>
<p>12.– Hondakin-urak arazteko instalazioak eta edateko ura tratatzeko instalazioak.</p>	<p>12.– Instalaciones de depuración de aguas residuales y de tratamiento de agua potable.</p>
<p>13.– Arrain-haztegiak.</p>	<p>13.– Piscifactorías.</p>
<p>14.– Abere-hiltegiak.</p>	<p>14.– Mataderos.</p>
<p>15.– Dantzaleku, diskoteka, gazteen diskoteka, disko-taberna, karaoke, taberna berezi, pub edo antzeko establezimenduak, bai eta zezen-plaza finkoak ere.</p>	<p>15.– Los establecimientos destinados a salas de fiestas, discotecas, discotecas de juventud, disco-bares, karaokes, bares especiales, pubs o similares, así como las plazas de toros permanentes.</p>
<p>16.– Jendaurreko ikuskizunetarako edo jolas-jardueretarako beste establezimenduak, betiere honako baldintza hauetakoren bat betetzen badute:</p>	<p>16.– Otros establecimientos de espectáculos públicos o actividades recreativas, siempre y cuando, en todos los casos, cumplan alguno de los siguientes requisitos:</p>
<p>– 300 lagun edo gehiagorentzako kapazitate edo edukiera izatea.</p>	<p>– disponer de una capacidad o aforo igual o superior a 300 personas.</p>
<p>– Lau ohm-eko karga estandarrerako 50 watt-etik gorako potentzia eraginkorra duen musika-ekipoa edukitzea.</p>	<p>– disponer de un equipo de música que tenga una potencia eficaz superior a 50 vatios para una carga estándar de cuatro ohmios.</p>
<p>– Indarrean dagoen arautegi teknikoaren arabera arrisku berezi handi bezala</p>	<p>– disponer de algún recinto catalogado de riesgo especial alto de acuerdo con la normativa técnica en vigor.</p>



Asteasuko udala

katalogatuta dagoen esparruren bat edukitzea.

– Kultura-balioa duen eraikina izatea, eta, arkitektura aldetik den bezalakoa izanik, ezinezkoa izatea ezarritako baldintza tekniko orokorrak osorik betetzea.

– Araubide bereziko establezimendua izatea, ikuskizun eta jolas-jardueren araudiaren arabera.

17.– 20 ALU (azienda larri unitateak) baino gehiagoko abeltzaintzako ustiategiak eta etxeko eskortak, edo ustiategi baliokideak, irailaren 22ko 515/2009 Dekretuaren 3. artikuluko a) idatz-zatian agertzen diren proportzioen arabera, edo horren ordeaz aterako den araudiaren arabera; txakur-zaindegiak (hazkuntza eta hezkuntza), 25 txakur baino gehiago hartzeko lekua badaute; denak ere, baldin eta lurzoru ez urbanizagarrian edo industriarako hiri-lurzoruan badaude.

18.– Etxeko abeltzaintza-jarduerak, alegia, 4 ALU (azienda larri unitateak) baino gehiago dituzten instalazioak, eta txakur-zaindegiak, den-denak, bizitegirako hiri-lurzoruan baldin badaude.

19.– Errauste-labeak.

20.– Lege honen 55. artikulua xedatzen duenaren arabera, osasunean eta ingurumenean antzeko eragina daukaten beste jarduerak.

– que se trate de edificios de valor cultural cuyas características arquitectónicas no permitan el pleno cumplimiento de las condiciones técnicas establecidas con carácter general.

– que se trate de establecimientos de régimen especial conforme a la normativa de espectáculos y actividades recreativas.

17.– Explotaciones ganaderas y corrales domésticos de más de 20 UGM (unidades de ganado mayor) o explotaciones equivalentes según las proporciones que se indican en el apartado a) del artículo 3 del Decreto 515/2009, de 22 de septiembre, o norma que lo sustituya, y guarderías caninas (cría y adiestramiento) con una capacidad superior a 25 perros, siempre que todas ellas estén ubicadas en suelo no urbanizable o suelo urbano industrial.

18.– Actividades ganaderas domésticas, entendiéndose por tales las instalaciones de más de 4 UGM (unidades de ganado mayor), y todo tipo de guarderías caninas, siempre que todas ellas estén ubicadas en suelo urbano residencial.

19.– Crematorios.

20.– Otras actividades que, de conformidad con el artículo 55 de esta ley, puedan tener efectos análogos sobre la salud y el medio ambiente.